BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

5221

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 1ekoa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (797/2014 prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (797/2014 prozedura laburtua) jarri zen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2014ko ekainaren 26ko Ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, atzera botatzen ziren 2013ko uztailaren 17ko Ebazpenaz (uztailaren 19ko EHAA, 138. zk.) egindako deialdiko Prestakuntza ikastaroen hasiera datak eta ikastaro horietan parte hartuko zutenak ezarri zireneko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendariaren 2013ko otsailaren 10eko Ebazpenaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoak. Eta Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegiak jatorrizko espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epean ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2014ko abenduaren 1a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.